A1217

ezagutzen al duzu Donostia?

Txarrabategi

Añorga auzoan aurkitzen da Txarrabategi baserria, beraz, Lugaritz auzokoa zen, gaur Añorga, Añorga Txiki eta Errekalde auzuneak osorik ziren bezelaxe. Txarrabategi izena hiru baserrirena da: Txarrabategi Goikoa, «*Pakondone*», (Fakundoenea) izenarekin ezagutua; Txarrabategi Txiki edo Txarrabategi Bekoa, «Ttorre» izenarekin ezagunagoa eta azkenik Txarrabategi Erdikoa azken hau gutxienez 21 izen-laburpen eta aldaki ezberdinekin! Hauek dira izen laburpen eta aldakiak: Txarrabategi, Txarrabatei, Txarrabategi Erdikoa, Txarabategi, Txarabatei, Txarrateñe, Txarratain, Txarretein, Txarratenea, Txarratene, Txarrapartei, Txarrapartegi, Txarrateñene, Txalapartei, Txalapartegi, Txaletene, Txaletenia, Txerriteyania, Txerriyanatei, Txerriyanategi, Txerritenea, (azken lau aldakiak Lasarte eta Urnieta aldean entzunak ditut).

Izen ofizial gisara Txarrabategi Erdikoa erabiltzen dute bertako baserritarrek, baina 1862. urtean Donostian egin zen baserri-etxeen erregistroan «*Charrabetári*» izena agertzen da Lugaritz auzoan, aldaki hau 22.a dugu. Bada azken bat ere: 1990. urtean Udalak ordura arte izenik ez zuten baserri-bideak izendatzen ditu eta hain ezaguna den etxe honen izena hartuaz «*Txatarrene*» izena (!) hautatzen du Añorgako bide batentzat. Eskerrak, auzotarrak arduratu zirela eta «*Errotazar bidea*» hautatu zutela aipatu bide horrentzat.



JOSU TELLABIDE

Donostiako kantutegia

Etxe hau da paperezkoa

J.I. ANSORENAK proposatua

Ate txokoan oilar bi
batak bestea dirudi
etxe hontako etxekoandreak
sorgin zaharra dirudi.

Etxe hau da paperezkoa,
leihoak alanbrezkoak.
Etxe hontako nagusia
laister gosez hiltzekoa.

Bataio kaskarra,
aitajaun zuhurra,
harrapatzen badegu
uretara haurra.

Gau oro ez da hain beste ikusten. Baina gure une garaietan, egun hauetan bezperetan batez ere (Gabon gaietan, Eguzki bezpera eta) haur koadrilak antolatzen ziren eta etxez etxe hiltzen ginen dirua bilatu. Baina aurrekoak kapoiratarrak ere. Betikoak kantatu eta txanponak jasotzeakoan eskerrak asko beraiek eskaintzen genituen. Baina odeiretxetarrez hazten gaude kantuak nolako, gorri jarri dituzu biak kantatzen zuzenean. Ederrezko bertsoak ere baziren eta gik zerrixarez honek erabiltzen genituen. Baina osaba eta izeben aholkuak eskuratzeko hauek erejaso ditu.

Hirugarrena bataioetan kantatzen zen. Orduko bataioak asteguneta eta familia bakoitza bere aldetik egiten ziren. Amarzen ajaratarera eta txapelekoak txanponak eta gozokak bota ziren arrapatzeko eta haur guztiek harrapatzera joaten ginen. Izugarrizko borrokak gertatzen ziren. Bataioak gutxi eriten bagenituen hirugarren hori esaten genuen hain guztiek. Erdiaz ere gure garaietan «*Bautizo cagado*». Lehendabizikoak oso donu ezaguna da. Eta beste biak errezitatuta esaten ziren.